# DATU-BASEETARA NOLA SARTU

Katalogoan datu-base bat bilatu nahian gabiltzanean, emaitza kopuru altuaren ondorioz interesatzen zaigun datu-basea ez badugu aurkitzen, bada emaitzak filtratu eta datu-basea topatzeko modu erraz eta azkarra.

Bibliotekako katalogora sartzeko:
https://ehu.on.worldcat.org/discovery?lang=eu

Bilaketak egiterakoan eredu bezala erabili daitezken hainbat diziplinatako adibide batzuk azalduko dizkizuegu.

Primal bezala ezagutzen den anatomia arloko datu-basea bilatzen saiatuko gara. Primal hitza bilaketa laukitxoan jarrita, 45.000 emaitza baino gehiago jasotzen ditugu.




Datu-basea topatzeko, pantailaren ezkerreko zutabean agertzen diren **Interneteko baliabidea** edo **Webgunea** formatu filtroak erabili behar ditugu.



Ezkerreko zutabean bilaketak egokitzeko filtro zabalgarriak ikus daitezke.




**Ikusi orain** botoia erabiliz datu-basera sartzeko aukera izango dugu.




Bibliotekako erabiltzaile eta pasahitza erabiliz identifikatzeko eskatuko digu.



Beste diziplina batzuetako datu-baseak topatzeko urrats berak erabili ditzakegu, adibidez, Zuzenbide arloko ***VLex*** topatzeko:




Ekonomia eta Enpresa arloko ***Abi*** datu-basera sartzeko:




Psikologia arloko ***Psycbooks***, datu-basea topatzeko:



***UNE*** arauak jasotzen dituen AENOR datu-basera sartzeko:




Diziplina jakin batetako datu-baseak topatzea interesatzen bazaigu, Bibliotekako webgunean jasotzen den **datu-baseen zerrenda** erabili dezakegu:






Eskainitako baliabideen zerrendatik, kontsultatu nahi ditugun datu-baseen diziplina aukeratuko dugu:

## Gai anitzekoak

- CSIC
- DIALNET
- PROQUEST CENTRAL
- SCOPUS
- WOS

## Artea eta Giza Zientziak

- Artea /Artearen Historia
- Filosofia
- Historia
- Hizkuntza eta Literatura

## Gizarte eta Lege Zientziak

- Antropologia
- Ekonomia eta Enpresa
- Geografia
- Hezkuntza
- Informazioa eta Dokumentazioa
- Jarduera Fisikoa eta Kirola
- Kazetaritza eta Publizitatea
- Politika Zientzia
- Soziologia
- Zuzenbidea

## Osasun Zientziak

- Erizaintza

Psikologiako datu-baseetan klik eginez, adibidez, arlo honetako datu-baseen zerrenda lortuko dugu. ***Ikusi orain*** botoia erabiliz, datu-basera sar gaitezke, katalogoan saioa hasi ondoren.

